



**La Fundación**  
SAN PRUDENCIO

**2024ko La Fundación San Prudencioaren  
Meritu Akademikoaren "Zure lorpenak  
aitortu nahi ditugu" sariaren oinarriak**

## 2024KO MERITU AKADEMIKOAREN “ZURE LORPENAK AITORTU NAHI DITUGU” SARIKO OINARRIAK

Xedea .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>
Nola parte hartu .....	3
Baldintzak eta epea .....	3
Hautagaitzak egiaztatzea.....	4
Sariaren zenbatekoa .....	4
Saria ematea .....	5
Konfidentzialtasun .....	5

## Xedea

---

Sari honen bidez, La Fundaciónen ahaleginaren kultura babestu, saritu eta bultzatu nahi dugu, eta La Fundaciónen titularren seme-alaben eta titularren beraien dedikazioa eta lorpen akademikoak balioetsi eta aintzatetsi nahi ditu.

## Nola parte hartu

---

Sari hauek titularrei edo 27 urteraino duten onuradunei zuzenduta dago, ahalik eta nota hobereana daukaten nota hobereana atera dute heziketa-ziklo bakoitzean:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- Batxilergoa
- Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (USE)
- Erdi mailako heziketa zikloa
- Goi mailako heziketa zikloa
- Unibertsitate gradua

## Baldintzak eta epea

---

2023/2024 ikasturtean amaitutako heziketa zikloan 8,50eko edo gehiagoko batez besteko nota duten zuzeneko titularrei (edozein adin) edo 27 urte edo gutxiagoko zuzeneko onuradunak aurkeztu ahal izango dira sari horietara.

Familia unitate berean bi titular badaude, horietako batek soilik eskatu ahal izango du seme edo alaba beraren parte hartzea.

Honako prozesu hau jarraituz izan zaitezke hautagai:

- Bete beherago argitaratuta dagoen formularioa [www.lafundacion.com/eu/](http://www.lafundacion.com/eu/) orrialdean.
- Formularioa betetzeko epea 2024/08/25ean amaitzen da.

## Hautagaitzak egiaztatzea

---

Heziketa-ziklo bakoitzerako jasotako eskabide guztiak ikusi ondoren, La Fundaciónek batez besteko nota altuena duen hautagaiari eskatuko dio egiaztatzea, non bi dezimalekin agertuko baiten lortutako batez besteko nota.

Egiaztigiri hori Ikasgunean eska daiteke: <https://ikasgunea.euskadi.eus/es/> edo ikastetxean bertan.

Heziketa ziklo berean, batz besteko nota bereko 5 hautagai aurkezten badira, hurrengo merituak hartuko dira kontutan:

- Edozein hizkuntzatan C1 maila izatearen egiaztatzea: puntu 1
- Edozein hizkuntzatan C2 maila izatea egiaztatzea: 2 puntu.
- Musika kontserbatorioan oinarrizko irakaskuntzak egiten ari dela egiaztatzea: puntu 1.
- Musika kontserbatorioan lanbide heziketa egiten ari dela egiaztatzea: 2 puntu.
- Dantza kontserbatorioan oinarrizko irakaskuntza egiten ari dela egiaztatzea: puntu 1.
- Dantza-kontserbatorioan lanbide-irakaskuntza egiten ari dela egiaztatzea: 2 puntu.
- Aurreko urtean Arabako selekzioko kide izateko hautatua izan izanaren edo lehen mailako talde bateko kide izateko beka baten egiaztatzea: puntu 1.
- Aurreko urtean Euskadiko edo estatuko selekzioko kide izateko edo goi-mailako edo errendimenduko kirolari izateko hautatua izan izanaren egiaztatzea: 2 puntu.

Batxilergoko heziketa-zikloan eta USEn pertsona berari ematen bazaio saria, Batxilergoko saria emango zaio, eta USEkoa, berriz, bigarren notarik onena duen pertsonari.

## Sariaren zenbatekoa

---

Heziketa ziklo bakoitzeko irabazleari, La Fundaciónek laguntza ekonomiko bat emango dio, hezkuntza kostuak ordaintzen laguntzeko.

- Heziketa ziklo bakoitzeko irabazle bakoitzari laguntza bana emango zaio.
- Heziketa-ziklo berean batez besteko notarik altuena duten 2 eta 5 hautagai bitartean aurkezten badira, gehienez 5 laguntza emango dira.
- Heziketa-ziklo berean batez besteko nota altuena duten 5 hautagai-zerrenda baino gehiago badaude, aurreko atalean deskribatutako merezimenduak eta puntuazioak hartuko dira kontuan. Batuketak egin

ondoren, lortutako puntuak berdinak badira, 5.000 euro banatuko dira guztien artean.

Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko banku-transferentzien bidez egingo dira.

Laguntza hau Meritu Akademikoaren Laguntzaren web orrialdean kontsulta dezakezu.

Meritu Akademikoaren Sariaren deialdia urtero egiten da eta saria publikotasun-, lehia- eta objektibotasun printzipioak betez ematen da.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du sari kopurua zabaltzeko edota aldatzeko eskubidea, baldin eta aitortza merezi duten eta interes berezikoak diren hautagaitzak baldin badaude.

Hautagaitza irabazleak La Fundación San Prudencioaren webgunean argitaratuko dira.

Saria eman gabe gera daiteke.

## **Saria ematea**

---

Sariak banatzeko ekitaldia publikoa izango da, eta zehazten den egunean egingo da. Ekitaldi horretan, sariak jasotzen dituzten pertsonen merituen berri emango da.

## **Konfidentzialtasun**

---

Datu guztiak konfidentzialki tratatuko dira. Nolanahi ere, La Fundación San Prudencio-ak beretzat gordetzen du hautagaitzak eta haien irudiak sare sozialen, webguneen, artikuluen, argitalpenen eta prentsaren bidez argitaratzeko, erakusteko eta/edo zabaltzeko eskubidea, bai eta irabazleen izenak eta hautagaien ezaugarri orokorrak ere, parte-hartzaileek hautagaitza entregatzeko unean sinatzen duten dokumentuan jasotzen den bezala.